

ERAIKUNTZEN ESTALKIEN TRATAMENDUARI BURUZKO ERAIKUNTZAN ERABIKI DAITEKEZAN MATERIALEN ARAUTEGIA

ZERGAITIA

Udalerrian, estalkien eraikuntzea behar dan moduan kontrolatzeko gaiztasuna kontutan izanik, materileen erabilpena, margoa, izaerea eta beste baldintzei jagokenez, eta, arautegi zehatz bat ez dagoan ezkeror, ezaugarri horreen onarpena arautzen dauan arautegi zehatzik, eta ikusitako materialeak sartzeko dagoan joera gogorragaitik, tokiko ezaugarriegiegokitzerik ez dabelarik; estalkien eraikuntzeari buruzko Arautegi hau, egiten da.

1. Artikuloa.-

Eraikuntzetako estalkietako ikusten diran gaien materiale, izaera eta margoak, Bermeoko Uriaren Udalerri barruan; Arautegi honetan ezarritakora lotuko da.

2. Artikuloa.-

Estalkiko materialea, naturala izango da, kasu bakoitzean, teila oker edo lehunezkkoa, keramika, gres edo zementuzko ereduak onartzen diralarik, beti ere, bere izaerea eta margoa, Arautegi honi lotzen bajako.

3. Artikuloa.-

Margoa, gorria izango da, egositako lurraren barruko maila eta graduetan, eta izaerea, lehorra eta buztinezkoa izango da, materiale naturala bezalako.

4. Artikuloa.-

Bermeoko Uri Zahar sailean, estalki guztietan zehazki galerazten ez diran teila oker (arabiar edo lomuda) eredukoak ezik, estalki guztiak geratzen dira galerazota, teila lehuneko (aliantekoa)gaz neoklasiko sasotik geroztikoez estalkita dagozan eraikuntzak izan ezik.

5. Artikuloa.-

Materiale bardineak egiten diran erreteila (teila oker edo lehunekoak) obra aurretik balegoz.

6. Artikuloa.-

Erabili nahi dan estaokiko materialak, Arautegi honek onartzen ez dauzan kasuetan, bere erabilpena, Udalak onartu beharko dau, zehazki.

7. Artikuloa.-

Bereziki, eta behar dan moduan justifikatzen dabezan isolatutako eraikuntzen egitasmoetan, estalkirako beste materiale batzuk onar daitezke, beti ere, aurre-egitasmo egokiaren onarpen zehatzagaz, obra lizentzia emoteko eskaria egin orduko tramitatu beharko dalarik.

8. Artikuloa.-

Estalkietan bere erabilpena debekatuta geratzen da, zeharo, baita ikusten diran hormetan ere, ondorengo materialeak:

- Asfaltiko ohial eta jarraiango asfaltoa.
- Fibrozementuzko plaka lehun eta ondadunak.
- Margo gorrikoak ez diran harbel eta hormigoizko teilak. Plastikozko teilak. Goma sintetikoa eta aluminiozko teilak.

9. Artikuloa.-

Estalkietako aldakuntza edo konponketa obra guztiak, oraindik aurrera, Arautegi honi lotutakoak izango dira.